



Mussche
Kirmen Uribe

Liburuak, oro har, konbentzitu egin nau. Orain arte Kirmen Uriberen bi liburu irakurri ditut, eta biek in antzeko zerbait gertatu zait, hau da, Uriberengan guztiz asebetetzen ez nauen zerbait topatzen dut, baina gehiago da asebetetzen nauena asebetetzen ez nauena baino. Beraz, niretzat Kirmen Uriberen irakurketek merezi dute, eta irakurle gisa ez daukat inongo arazorik Kirmen Uriberi neure liburutegian leku bat egiteko. Gainera, inoiz ahaztu beharko ez genituzkeen gertaerak oroimen historikotik erreskatatzeko haren asmo laudagarriarekin bat egiten dut, lehendabizi, biktimizekiko begirunez, garena izaten lagundu zigutelako; eta bigarrenik, bere historia ahazten duen herri batek bere egunak zenbatuta dauzkalako.

Batzuetan, liburua irakurtzen nuen bitartean, pentsatzen nuen “Bueno, kontu zaharrak dira, ezta?” Hau da, bigarren mundu-gerran gertatutako istorioak dira, kontzentrazio-esparruetako bizi-baldintza krudelak, haur-deportazioak, eta abar, eta abar... Nolanahi ere, eleberriaren planteamenduan halako originaltasun bat egon badagoela onartu behar da, zeren, azken batean, askok –nik esaterako– ezer gutxi baikenekien administrazio-akats baten ondorioz –antza denez–, aliatuek eurek bonbardatuta, hondora joan ziren preso betetako itsasontzi haiei buruz. Administrazio-akats bat... edo akaso beldur ziren alemanak ez ote ziren saiaturiko gerrako frontea Norvegiatik berreraikitzen eta nahiago izan zuten gizon haiek sakrifikatzea gerrako fronte berri bati aurre egitera arriskatu baino lehen... Dena den, badirudi hori izan zela, akats bat (gerran horrelako akatsak oso garesti ordain daitezke). Eta azken finean, gerra hark utzi zituen 45 milioi hildakoekin alderatuta, zer dira milaka batzuk gehiago ala gutxiago...? Krudela da gauzak horrela esatea, baina horrelako hondamendietan, hildakoak horixe izaten amaitzen dira: zenbateko hutsak. Garaileen euren euforia bera ere hutsartez eta hutsunez beteta egoten da, tragediaz eta galerez josita.

“Mussche” eleberri historikotzat jo daiteke, arestiko gertakari historikoetan oinarrituta dagoenez gero. Egia esanda, istorio bat bideratzeko batere gaizki pentsatuta ez dago. Agian, egilearen irudimena alde aurretiko gidoira apur bat mugatu dezake horrek, baina esan ohi denez, “askotan errealitateak irudimena gaintzen du”, eta benetako gertaeretatik abiatzen diren eleberriak ere oso indartsuak izan daitezke; oso interesgarriak, hunkigarriak edota irakasgarriak gerta dakizkiguke... Nolanahi ere, eleberri historiko batek gertakari historiko jakin batzuen barruan garatu beharko du beti, bestela...

Gaiari buruz zenbait momentutan egiten den planteamendu “sentiberegia” ere aipatu beharra dago... Oro har, mukizapia ateratzeraino hunkitzen nauten film edo liburuen aurrean erne jartzen naiz... Liburuaren bukaera aldean horixe gertatzen da-eta; 22. atalean –uste dut– liburuaren unerik hunkigarriena erdiesten da... Onartu beharra dago, hala ere, kausa on batengatik isuritako malkoak direla, baina tira...

Batzuetan, liburua irakurtzen nuen bitartean, Kirmen Uribek “bridatik” etengabe tiratzen duela pentsatzen nuen, hau da, bere euskarari ez dio “trostan” ateratzen uzten, euskararen bridatik tiratu egiten du hura frenatzeko, zaldia –euskara– erotuko zaion beldur edo, eta ez dakit hori ona ala txarra den... “Neurtuegia” izateak errazkerian erortzera eraman gaitzake...

Askotan, idazleek mota guztietako irakurleengana iritsi nahi dute, baita gehiegi irakurtzen ez dutenengana ere (une honetan ez naiz Kirmen Uriberi buruz ari, orokorrean baizik). Areago, noizbait idazleren eta itzultzailearen bati entzun ahal izan diot “berak ahal duen guztia egiten duela bere liburua bere amonak ere ulertu ahal izan ditzan”. Tira, zure amona Ikastola bateko andereño izan bada, edo lanbide liberal bat izan badu, edo liburuzalea bazen eta euskaraz irakurtzea izugarri gogoko bazuen... orduan ondo, besterik ez genuen behar ba, idazlearen amonak berak ere ez ulertzea bere bilobak idatzitakoa! Baina idazle horren amona euskaraz alfabetatu ez bazen, eta bertso-papera batzuk eta biblia edo bere herriko euskal klasikoren bat kenduta ez badu besterik irakurri bere bizitza osoan, orduan, kasu horretan, “amonak ulertzeko moduan idaztearen kontu hori” jada ez dut hain ondo entenditzen... Kontuz, gogoeta hau ez dut egiten Kirmen Uriberengatik bereziki, modu orokorrean baizik, eta “euskara sotila eta denontzako” topikoa pixka bat ezbaian jartzeagatik aipatu dizuet.

Eta orain bai, Kirmen Uriberen euskarari helduz berriro, ondo dago, funtzionatzen du, naturala da, gauzak ez ditu gehiegi konplikitzen, batzuetan une jakin batean erraza bilatzen duelako inpresioa emango dizu, baina haren euskara “logikoa” da, bere senari eta bere kultur bagajeari jarraitzen die. Eta sotiltasuna modu natural batez aurkezten zaigunean, kasu honetan bezala... onartu beharra dago proposatzen zaigun hizkuntza-ereduarekin bat egitea ia-ia inertzia-kontua dela.

Eta liburu hau –niri– zer iruditu zaidan, pixka bat hori da.

(Eta hala izan ez bazan, sar nadila kalabazan!)